

## **INDARKERIA KOLEKTIBOAK OSASUNEAN DUEN ERAGINAREN AZTERKETA**

Fernando Buesaren oroitzapenez eginiko IX. In Memoriam ekinaldian plazaratu da *El impacto en la salud de la violencia colectiva* azterlan epidemiologikoa. Fernando Buesa Fundazioak bultzatutako lan hori epidemiologo, psikiatra eta psikologo ospetsuen talde batek egin da. Taldeko kideen artean, zuzendari lanetan aritu direnak aipatuko ditugu:

**Itziar Larizgoitia**, Osasun Zerbitzuen Ikerketako doktorea, Indarkeria Kolektiboari eta Osasunari buruzko Lan Taldeko kidea (Espainiako Epidemiologia Elkarteak).

**Isabel Izarzugaza**, Medikuntzako doktorea, Epidemiologiako masterduna, Medicos del Mundo erakundeko Giza Eskubideetako arduraduna, Indarkeria Kolektiboari eta Osasunari buruzko Lan Taldeko kidea (Espainiako Epidemiologia Elkarteak).

**Iñaki Markez**, Psikiatriako doktorea, OME Euskadiko Osasun Mentaleko Elkarteko burua. EKIMEN 2000 egitasmoaren arduraduna.

Osasunaren Mundu Erakundeak osasun publikoaren arduradunentzako kezkatzen du indarkeria. Alde zientifikotik aztertzen animatzen du, indarkeriak sortzen dituen osasun arazoak bistaratzearren eta irtenbideak aurkitzearren. Edozein gizakiren lehendabiziko eskubidea, bizitzeko eskubidea da. Eta eskubide hori ehunka aldiz urratu du indarkeria terroristak Euskadin. Indarkeria horren erruz, orobat, era askotako ondorio txar ugari irauten du beste biktimen askorengan.

Beste milaka batzuek indarkeriazko egoera nozitzen dute gaur egun, jazarpenaren eta mehatxuen pean, duten lanbidearengatik edo postu politikoarengatik batez ere. Benetako egitatea da, eta biktimen elkarteek zenbatzen dute. Indarkeria hori hainbat intentsitatekin eta hainbat bidetatik gauzatzen da: pertsonak erailteza (gizartean nabarmenak direnak nahiz ez direnak), jazarreza, estortsio egitea, mehatxatzea, edo, besterik gabe, kaleko indarkeria egitea. Horrek ez du batere eragin berdina izaten gizabanakoengan. Hala ere, indarkeria horrek Euskadiko biztanleen osasunari nola eragiten dion ez da aztertu, berariaz.

Horregatik, Fernando Buesa Fundazioak osasun arloko profesionalen talde baten lana bultzatu nahi izan du. Politikoki independenteak dira profesional horiek, eta euren buruari galdetu diote ea Euskal Autonomia Erkidegoan nozitzen den indarkeriak zer-nolako eragina duen gizabanakoen osasun fisiko edo psikikoaren gainean, eta ea indarkeriazko inguruak inguru horretan bizi diren gizabanakoen osasunari eragiten dion. Galdera horiek eta beste batzuek bultzatuta ekin zioten ISAVIC (Indarkeria Kolektiboak Osasunean duen Eragina) proiektuari.

Fernando Buesaren oroitzapenez eginiko IX. In Memoriam ekinaldian, joan den otsailaren 19an, gure artean izan genuen Itziar Larizgoitia, ISAVIC proiektuko zuzendaritza taldearen ordezkari gisa. Epidemiologiaren ikuspegitik mintzatu zitzaigun, biztanleei —oro har, lagin esanguratsua

hartuta— egindako 2.000tik gora inkestetatik ateratako ondorioez, eta indarkeria mota horren zuzeneko biktimei egindako sakoneko ia berrogei elkarrizketez.

Azterlanaren emaitzak Fernando Buesa VIII. Mintegiarekin batera argitaratuko dira. Mintegi hori uztailaren 23an eta 24an da egitekoa, EHUren udako ikastaroen barruan, eta helburu bakar hau izango du: azterlan horren ondorioak aztertzea, azterlanaren egileen eskutik.